

MENDIAN, SEGURTASUNA!

Mendia opari baliotsua... edo zigor gogorra izan daiteke!

Mendiko segurtasunaren oinarriak heziketa eta informazioa dira.

Ikasi eskarmentu handiagoa duten pertsonengandik.

Klub baten eta Federazioaren bazkide izateak lagunduko dizu hobeto prestatzen eta pertsonak eta lekuak ezagutzen..

Ondo prestatu zure irteerak: ibilbidea, bere alternatibak eta iragarpen meteorologikoak kontuan hartu. Material ona erabili eta egoera onean eduki; izan ere, zure segurtasuna horren mendean egongo da.

Ez zaitetz bakarrik joan edo, bestela, alde zurretik esan nora zoazen eta noiz itzuli behar duzun.

Zure gaitasunari eta esperientziari balio handiegia ematea oso arriskutsua da.

Eraman janaria eta edaria, oinarrizko botikina, aldatzeko arropa, txilibitua, iparrorratza eta mapa.

Ezer gertatuko balitz, ikusi non lor dezakezun laguntza eta eraman telefonoa edo beste baliabide bat laguntza eskatzeko.

Garrantzitsuena ez da gailurrera iristea, baizik eta egiten duzun bidea eta kontatu ahal izatea.

Gainera: EZ EZAZU NATURA ARRISKUAN JARRI: ERRESPETA EZAZU!

Zure atzetik zuk bezala gozatu nahi izango duten beste pertsona batzuk etorriko dira.

Ez ezazu zure oinatza utzi. Utzi natura dagoen bezala.

Ez utzi zaborrik. Jaso ezazu eta eraman baimendutako lekuetara edo zure etxera, beharrezkoa bada.

Naturaren bakea eta isilunea errespetatu itzazu.

Ez piztu surik, batez ere haizea badabil. Piztu behar baduzu, horretarako prest dauden lekuetan egin.

Ez ezazu bota zigorro-mutxikinik, piztutako pospororik edo barbakoa-txingarrik.

Portaera arduaqabeak kalte ekoloqiko larria eraqin dezake.

DENA DEN,
LASAITU ETA

112

TELFONORA DEITU
LARRIALDIETARAKO
TELFONO BAKARRA

((112))
SOS DEIAK

 Cruz Roja
Gurutze Gorria



euskal mendizale federazioa
FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO